



NEGUKO OPORRETARAKO AISIALDI ESKAINTZA

ABENDUAREN 26TIK 29RA LH1ETIK AURRERAKO IKASLEENTZAT

Neguko oporretarako **NEGULEKUA** eskainiko dugu Laudio Ikastolan abenduaren **26tik 29ra LHko 1. mailatik aurrerako ikasleentzat** goizeko ordutegian: **10:00etatik 13:00etara**.

PROGRAMAZIOA

Ikastolan zein herrian ekintza ezberdinak proposatuko ditugu:

Abenduaren 26a, asteartea
Ikastolan jolas eta tailerrak.

Abenduaren 27a, asteazkena
Latorroko frontoian eskalada.

Abenduaren 28a, osteguna
Goizean baseritarren azoka bisitatuta sukaldaritza tailerra.


Iluntzean, Ikastolan norberak ekarritakoa afaldu, gabon zaharra ospatu eta bertan lo egin. (hau hautazkoa da)

Abenduaren 29a, ostirala
Ikastolan esnatu, gosaldu eta urtea agurtzeko mendi txangoa. (bezperan Ikastolan geratu ez direnak, zuzenean mendi txangora joango lirateke)

IZEN EMATEA

Jarduera burutzeko gutxieneko kopurua behar da eta plaza mugatuak daude. Izena emateko azken eguna abenduaren 5a izango da.

izena eman 



HELBURUAK

- Dinamika eta jolas ezberdinen bitartez euskararen erabilera sustatu.
- Parte hartzaileen adimen eta zentzumenak estimulatu eta haien interesei erantzuna eman.
- Elkarbizitzarako balioak indartu.
- Sormena garatu
- Inguruarekiko errespetua eta gozamena bultzatu.

KUOTA

Negulekuaren kuota 80 eurokoa izango da.